



ALBISTEAREN ZATIAK

Titularra

Titulua

- Albistearen laburpen zehatza da.
- Erakargarria izan behar du.
- 13 hitz baino gutxiago izango ditu.

Azpтитulua

Sarrera

- Tituluaren datu osagarriak ematen ditu.
- Albistearen lehenengo paragrafoa da.
- Elementu nagusiak (zer, nor / nork / nori, non, noiz...) ematen dira aditzera.

Gorputza

- Gainerako informazioa ematen du, garrantzi gehienekotik gutxienerako ordenan.



Goiko informazioa kontuan izanik, adieraz ezazu beheko testu zati bakoitza albistearen zein zatiri dagokion.

Saioan agertu ohi diren etorkinei dagokienez, Afrikakoak dira 10, Latinoamerikakoak 11, Asiakoak 12 eta Europakoak 24. Groenlandiako eskimal bat, Australiako etorkin bat eta Ipar Amerikako beste bi ere badaude protagonisten artean. Haien herrialdeetako gauzak ezagutzeko ere aproposa da *Un lloc estrany*.

Dokumentalak jende gutxi ikusten dituela diote, baina Katalunia aldean salbuespen adierazgarriak daude. TV3 telebista kateak ematen duen *Un lloc estrany* dokumental-saioak sekulako harrera ona izan du ikusleen artean. Martxoaren 27an estreinatu zutenetik % 27,6ko batez besteko audientzia izan du, katearen batez bestekoa baino zazpi puntu eta erdi gehiago.

'Prime-time' ordutegian ematen dute saioa, eta batez beste % 27,6ko audientzia du Katalunian

Etorkinek Kataluniako eta Espainiako herritarren ohiturez hitz egiten dute emankizunean. Astean gai bat jorratzen dute: lana, erlijioa, gastronomia, familia, harremanak, heriotza, hizkuntza... "Beste herrialdeetako pertsonek nola ikusten gaituzten erakusten ahalegintzen gara eta, batik bat, geure buruaz barre egiten. Nire ustez, hor dago arrakastaren gakoa", azaldu du Miquel Garciak, saioaren arduradunak.

Etorkinak protagonista dituen dokumental-saio batek ezusteko arrakasta lortu TV3n